



Bake  
prozesua  
indartzeko  
**Foro**  
Soziala

**Foro**  
Social  
para impulsar  
el proceso  
**de Paz**

**Forum**  
Social  
pour impulser  
le processus  
**de paix**

**Social Forum**  
to promote the Peace process

2018ko maiatzak 13

Foro Sozial Iraunkorraren agerraldia

Maroñoko elkarrizketen 25. urteurrena

Gizarte zibilaren paper erabakigarria bakearen eraikuntzan

25 aniversario de las conversaciones de Maroño

El papel determinante de la sociedad civil en la construcción de la paz

Saguesko Nestor Basterretxearen "Bakearen Usoaren" aurrean

Donostia-San Sebastián

# Aurkezpena

*Nekane Altzelai*

Gaurkoan, ETA desagertu eta astebetera, Foro Sozial Iraunkorrak euskal jendartea-rekin partekatu nahi du etorkizunari begirako hausnarketa bat, horren esanguratsua den “Bakearen Uso” honen aurretik eta Maroñoko elkarrizketen 25. urteurrenaren harira. Horren irakurketa jarraian egingo dute Aitzpea Leizaolak eta Fernando Armendarizek.

Goizean bertan Akordio Plazaren ezohiko bilera izan dugu eta bertan elkartu gara Foro Soziala osatzen dugun kideok eta eragileetako ordezkariak.

Ez da kasualitatea izan toki hau hautatu izana gizarte osoarekin gure hausnarketa partekatzeko, “Bakearen Usoa” hain zuzen. Nestor Basterretxearen eskultura ezagun hau ez da beti hemen kokatuta egon. Eta ziurrenik, gazteenek ez dute jakingo euskal jendartea-k bizi izandako tentsio une gogorrenetariko batzuen atze oihal izan zela uso hau.

Modu berean, ez da kasualitatea hori guztia esatea Maroñoko elkarrizketen 25. urteurrenean. Gaur inoiz baino beharrezkoagoa da gogoratzea eta balorean jartzea jatorri eta zeinu oso ezberdinetako hainbat eragilek, oso egoera konplexuan, elkarrizketan eta bateratze-lanetan oinarritutako bidea egiten jakin zutela. Pertsona horiek izan ziren erronka konplexu hari ekin ziotenak eta ondoren etorri diren beste askori norabidea markatu zietenak. Pertsona horiei guztiei, ondoren etorri zirenei eta egun oraindik bidea egiten dihardutenei, adierazi nahi diegu Foro Sozial Iraunkorraren izenean, gaur eta hemen, gure aitortza eta eskertza osoa.

Zorionez egungo egoera soziala beste bat da, begi bistakoa da hori. Foro Soziala azken fase honetan gizartea-k bizi izandako zenbait aurrerapausoen lekuko da, eta baita asko eta askoren sustatzaile ere.

Orain dela egun batzuk, ETaren disoluzio prozesua gauzatu zen. Jakina denez, Foro Sozial Iraunkorra lanean jardun da, beste eragile batzuekin batera, hilabete luzetan zehar era diskretuan ekarpen positibo bat egiteko eta ahalbidetzeko bukaera prozesu hori modu ordenatuan garatzen zela eta zalantza izpirik uzten ez zuela nazioarteko komunitateak ziurtatu duen emaitzak. Geneva eta Kanboko adierazpenetatik 10 egun pasa ostean argi esan dezakegu aurrez ezarritako helburua bete dela.

Aitortza hori, ordea, ezin ulertu daiteke herri honetako biktima guztiak ere gogoan hartzen ez baditugu. Urte luzez horren bakarrik utzi izan ditugun biktima horiek guztiak, hain zuzen. Oraindik eraikitzeak dugun berradiskidetze sozialerako prozesu horretan elementu nuklear izan beharko dira, ezinbestean.

.....

## **Presentación**

*Juanjo Espina*

En el día de hoy, una semana después de la desaparición de ETA, el Foro Social Permanente ha celebrado una reunión extraordinaria de todas las entidades y personas que lo componen, y quiere compartir con la sociedad vasca una reflexión de futuro que a continuación expondrán Aitzpea Leizaola y Fernando Armendariz.

Lo hacemos aquí porque la Paloma de la Paz es un lugar emblemático, y lo hacemos hoy porque el martes se van a cumplir 25 años de las conversaciones de Maroño.

Esta emblemática escultura de Nestor Basterretxea no siempre estuvo situada aquí. Y, probablemente, las personas más jóvenes no sabrán que, con esta Paloma como telón de fondo, la sociedad vasca vivió uno de sus momentos más tensos y difíciles.

Si lo hacemos hoy es porque pasado mañana se cumple el 25 aniversario de las conversaciones de Maroño. Es necesario recordar y poner en valor que personas y organizaciones de muy distinto signo, en una situación de extrema dificultad, supieran hacer un camino de dialogo y puesta en común. Ellas y ellos fueron las y los impulsores de un camino difícil al que otros dieron continuidad después. A aquellas personas pioneras, a las que les siguieron después y a las que hoy todavía siguen en este empeño, desde el Foro Social Permanente, hoy y aquí, les expresamos nuestro reconocimiento y gratitud.

Afortunadamente, hoy la situación social es otra; salta a la vista. De hecho, el Foro Social es testigo e incluso impulsor de algunos de los avances logrados en esta última fase por la sociedad.

Hace poco más de una semana que se confirmó la desaparición de ETA. Como es conocido, el Foro Social Permanente, entre otros actores, ha estado trabajando largos meses de manera discreta para aportar en positivo y para facilitar que este proceso fuera ordenado y que el resultado del mismo, que ha contado con la certificación de la comunidad internacional, no dejara duda alguna. Diez días después de los pronunciamientos de Ginebra y Kanbo, podemos decir que el objetivo marcado se ha cumplido

Pero este reconocimiento a la labor de la sociedad civil por su trabajo a favor de la reconciliación y la paz no puede entenderse sin, al mismo tiempo, reconocer a las víctimas de este país. Esas víctimas a las que tan solas dejamos durante tantos años. Esas víctimas que hoy son y serán un elemento nuclear en el proceso de reconciliación social que aún nos queda por construir.

La música de Paul Casals al violín nos acompañará mientras guardamos un momento de silencio en memoria de las todas las víctimas bajo esta “Paloma de la Paz”.

## *Adierazpena*

Aitzpea Leizaola

Datorren maiatzaren 15ean “Maroñoko elkarrizketen” 25. urteurrena izango da, gizarte zibileko hainbat eragile mahai berean eseri zituen dinamika, helburu zehatz batekin: balorean jartzea elkarrizketa aldeanitza bake agertokiaren eraikuntzan ekarpen a egiteko.

Agerraldi honen bidez Foro Sozial Iraunkorraren asmoa da dinamika hura ahanzturan ez jaustea bai eta memoria inklusiboaren eraikuntzaren norabidean zer suposatu zuen balorean jartzea.

Hori dela eta gerturatu gara gaurkoan Nestor Basterretxearen “Bakearen Uso” honetaraino: bere aurreko kokalekuaren, Anoetako zelaiaren parean egon zen garaian, euskal gizartek bizi izandako enfrentamenduaren lekuko zuzen izan zen eskultura. Zein urrun zegoen artistaren desira Bakearen Usoa irudikatu zuenean hilabete luzeetan zehar bere oinetan jazo izan ziren gertakari horietatik.

Foro Sozial Iraunkorrik bere baitan hartzen ditu gaur egun euskal jendarte zibileko eragile anitz ugari. Badakigu ez dugula gizarte osoa ordezkatzen, baina gure pluraltasuna gure nortasunaren marka nagusia da.

### **Maroñoko elkarrizketak**

1993. urteko maiatzaren 15ean Arantzazun elkartu ziren euskal jendarte zibileko hainbat antolakunde, ikuspuntu oso desberdinak zituztenak gatazkaren izaeraren inguruan, baina argi zutenak bake iraunkor baten eraikuntza ezinbestekoa zela eta, bide horretan, gizarte zibilak paper erabakigarria jokatu beharra zuela. Honakoak ziren antolakunde horiek:

- Elkarri
- Gesto por la Paz
- Gestoras Pro Amnistía
- Senideak
- Gernika Batzordea
- Gernika Gogoratuz
- Herria 2000 Eliza
- Denon Artean

- Bakea Orain
- Erreenteria-Oreretako Pake Taldea

Helburuak argiak ziren: aztertzea zein zen gure Herria kolpatzen zuen gatazkaren eta biolentziaren izakera; adosten saiatzea diagnostiko bat orduko egoeraren gainean; eta proposamena osatzea irtenbide posible bat ahalbidetzeko.

Une horretan hasi zen 1994. urteko urtarrilaren 16ra arte luzatu zen prozesua. Bertan, modu argian frogatu zen gerora gatazka ez errepikatzeko bermeekin konpontzeko ezinbestekoa dela egiaztago den horixe bera: ezinbestekoa dela gizarte zibil antolatuaren parte hartza eman beharreko pausoak sustatzeko eta bermatzeko.

Elkarritzketek guztiz erantzun ez bazieten ere aurreikusitako helburu guztiei, parte hartu zuten talde guztiak sinatu zuten ondorioen dokumentua: bertan jasotzen zen bakea lortzeko bide onena ezinbestean zela “elkarritzeta mekanismoek biolentzia adierazpide guztiak ordezkatzea”. Eztabaida ezina da hitz horiek gordetzen duten gaurkotasuna.

Foro Sozial Iraunkorraren izenean, ondorengo gogoeta hauek egin nahi ditugu:

1. Maroñoko elkarritzketetan parte hartu zuten erakundeei eta hauen baitan zeuden pertsonei gure aitorta erakutsi nahi diegu, ezberdintasunak gainditzeari begira elkarritzketaren aldeko apustua egin zutelako. Gaur egun, elkarritzetarako garai zailak dira berriz ere, eta horregatik, beste behin aldarrikatu nahi dugu elkarritzeta dela tresna eraginkorrena etorkizuneko erronkei aurre egiteko.
2. Urte luzetan, ikuspegi oso desberdinak, muturreko indarkeria testuinguru batean, pertsona guztien giza eskubideen aldeko, biktimen guztien aitorpenaren aldeko eta baki-kultura eraikitzearen aldeko apustua egin zuten, eta egiten ari diren, pertsona eta eragile guztiei gure aitorta erakutsi nahi diegu.
3. Bakearen Usotik aitorta berrezia erakutsi nahi diegu indarkeria mota guztiak biktimei. Jendartea zorretan dago biktimekin. Urte luzetan, bakardadea eta aitorta eza pairatu behar izan dute herri honetako biktimek. Bihotz-bihotzez diogu. Hala eta guztiz ere, beraien mezua ez dago mendekuan edo errebantxan oinarrituta, baizik eta errespetuan, elkarbizitzan eta adiskidetzean.
4. Foro Soziala osatzen dugun pertsonok eta erakundeok ez dugu etsiko eta ez dugu utziko denboraren joana izan dadin arazoak konpontzeko bitarteko bakarra. Apaltasun osoz diogu hori, Foro Sozialak, errepikatzen dugu, ez baitu gizarte osoaren ordezkari izaterik espero, baina argi eta garbi adierazi nahi dugu honakoa: garaia da herriko gizartek, gizarte zibil osoak, beste aurrerapauso bat eman dezan herri honek behar duen bizikidetza demokratikoa eraikitzeko bidean. Egun ditugun kondizio objektiboak orain pare bat astekoak baina askoz hobeak dira; eta are hobeagoak, konparatzen baditugu 2011n sortu zirenekin. Zer esanik ez erreparatzen badietu orain 25 urte elkarritzetaren bideari ekitea erabaki zutenek zituztenei.

Finean, Maroñokoa bezalako ekimenak, eta aurretik eta ondoren egon diren esperientziak, urte hauetan guztietaan zehar euskal jendartea bakearen eraikuntzan ez etsitzera eraman dutenak izan dira, eta eragin dutenak bake prozesuan aurrera egiteko berrasmatu behar izatera eta bakea eta elkarbizitza sustatzeko tresna berriak sortu behar izatera.

Lan eskerga dugu aurretik: biktimak, biktima guztiak, eta horiei dagozkien eskubide guztiak erdiestea egia jakiteko, justiziarako eta erreparaziorako. Sekula berriro ezin da sentitu biktima bat bazterturik. Preso eta ihesean daudenak, espetxe politika arrunta aplika dakien eskubidea. Sekula berriro inongo preso edo senidek ez du pairatu behar zigor erantsirik. Memoria inklusibo baten eraikuntza non errelato oro sentituko den ordezkatuta. Sekula berriro inork ez du sentitu behar bere ideiak garaituak izan direla

Gaurkoan amaitu nahi genuke azpimarratuz gizarte zibilak izandako papera, izan dituen formulazio guztien bidez, determinantea izan dela eta egundo oraindik badela. Ezinbestekoa da bide honi jarraipena ematea eta ezberdinen arteko elkarrizketa gure bandera bilakatzea gatazkaren ondorio guztiak konponbidean jartzeko.

# **Declaración**

*Fernando Armendáriz*

El próximo martes, 15 de mayo de 2018, se cumplen 25 años de las “conversaciones de Maroño”, dinámica que acertó en sentar en una misma mesa a diversos agentes de la sociedad civil con un propósito claro: poner en valor el diálogo multilateral para contribuir a la construcción de un escenario de paz.

Mediante esta comparecencia deseamos, en nombre del Foro Social Permanente, no dejar que caiga en el olvido esta dinámica y poner en valor lo que supuso, como contribución a la construcción de una memoria inclusiva.

Es por ello que nos hemos acercado hoy a esta “Paloma de la Paz”, escultura de Nestor Basterretxea que fue testigo directo, en su anterior ubicación junto al Estadio de Anoeta, del enfrentamiento generado en el seno de la sociedad vasca. Qué lejano estaba el espíritu con el que Nestor Basterretxea la imaginó de lo que la Paloma tuvo que presenciar después durante largos meses.

El Foro Social Permanente es hoy día una dinámica que engloba agentes de una cierta pluralidad de la sociedad civil vasca. Somos humildes. No representamos a todos pero nuestra pluralidad es nuestra principal seña de identidad.

## **Conversaciones de Maroño**

El 15 de mayo del año 1993 se reunieron en Arantzazu diversas organizaciones de la sociedad civil vasca que tenían puntos de vista muy diferentes sobre las razones de ser del conflicto, pero que coincidían en que la construcción de una paz duradera era necesaria y que, además, la sociedad civil estaba llamada a jugar un papel determinante en ese proceso. Esas organizaciones eran las siguientes:

- Elkarri
- Gesto por la Paz
- Gestoras Pro Amnistía
- Senideak
- Gernika Batzordea
- Gernika Gogoratuz
- Herria 2000 Eliza
- Denon Artean

- Bakea Orain
- Erreenteria-Oreretako Pake Taldea

Sus objetivos fueron claros: analizar cuál era la naturaleza de la situación de conflicto y violencia que afectaba al país; tratar de consensuar un diagnóstico de la situación que se vivía; y elaborar una propuesta para plantear una posible solución.

Entonces comenzó un proceso que se alargó hasta el 16 de enero de 1994, y que sentó las bases de lo que después se ha demostrado es imprescindible para la resolución de un conflicto con verdaderas garantías de no repetición: la implicación de la sociedad civil organizada como impulsora y garante de los pasos a dar.

Si bien es cierto que finalmente las conversaciones no llegaron a satisfacer todos los objetivos definidos inicialmente, todos los grupos participantes firmaron el documento final donde se recogía que el mejor camino para la paz pasaba por *“sustituir todas las expresiones de violencia por mecanismos de diálogo”*. La actualidad que aún conservan estas palabras es indiscutible.

Desde el Foro Social Permanente queremos hacer públicas las siguientes reflexiones:

- 1.- Queremos rendir nuestro reconocimiento a las entidades que participaron en las conversaciones de Maroño y, en el seno de ellas, a las personas que apostaron por el diálogo como método para resolver las diferencias. En un momento en que de nuevo el diálogo atraviesa un momento difícil, queremos volver a reivindicar el diálogo como mejor herramienta para hacer frente a los retos que el futuro próximo nos depara.
- 2.- Queremos reconocer el trabajo realizado durante largos años por todas las entidades y personas, que desde posiciones muy diferentes, trabajaron y trabajan por la defensa de los derechos humanos de todas las personas, por el reconocimiento de todas las víctimas y por construir una cultura de paz en un contexto de extrema violencia.
- 3.- Desde esta Paloma de la Paz queremos hacer un reconocimiento especial a todas las víctimas de todas las expresiones de violencia. Esta sociedad tiene una gran deuda con ellas. Las víctimas de este país han soportado con paciencia los largos años de soledad y no reconocimiento. Y lo decimos desde el corazón. Y sin embargo, nunca hemos oído a la víctimas de este país pedir venganza o revancha, sino respeto, convivencia y reconciliación.
- 4.- Las personas y entidades que conformamos el Foro Social no nos resignamos a dejar que el paso del tiempo sea la única cura para los problemas que aún quedan pendientes por resolver. Lo decimos con humildad, porque, insistimos, el Foro Social no pretende arrogarse la representación de toda la sociedad, pero lo queremos decir alto y claro: es la hora de que la ciudadanía, toda la sociedad civil, de un nuevo paso adelante para construir la necesaria convivencia democrática en este país. Las condiciones objetivas para ello son hoy mejores que las de hace un par de semanas, incluso mejores que las que vivían aquellos quienes, hace 25 años, decidieron emprender el camino del dialogo.

Y es que Jornadas y dinámicas como las de “Maroño” y todas las que les precedieron y aquellas que les siguieron, son las que han llevado durante todos estos años a la sociedad vasca a no resignarse en la construcción de la paz, a reinventarse, a crear nuevas herramientas para impulsar la paz y la convivencia.

Nos queda trabajo por realizar. Las víctimas, todas las víctimas, y su derecho a la verdad, la justicia y la reparación. Nunca ninguna víctima más debe sentirse excluida. Las personas presas y huidas y su derecho a que se les aplique una política penitenciaria de carácter ordinario. Nunca ninguna persona presa más, ni ningún familiar, debe tener que sufrir un castigo añadido. La construcción de una memoria inclusiva en la que todos los relatos se sientan razonablemente representados. Nunca nadie debe sentir que sus ideas han sido derrotadas.

Queremos concluir hoy aquí destacando el papel que la sociedad civil vasca, en sus múltiples expresiones, ha jugado. Es imprescindible que continuemos recorriendo esta senda y hagamos del diálogo entre diferentes nuestra bandera para la paulatina resolución completa de todas las consecuencias del conflicto.